

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatu Kontseiluaren 9/2016 Foru dekretua, otsailaren 9koa, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duena

Foru Administrazioan, administrazio antolaketa ezartzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak du bere gain, halaxe xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, Autonomia erkidego osoko erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanen Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak eta Batzar Nagusiek onartutako erakunde araudiak.

Ahalmen hori erabiliz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua onartu zen, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta lege araubidearena. Horren babesean, diputatu nagusiak, uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak eta horien lan arloak ezarri ditu, 2015-2019 agintaldirako.

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari eginkizun eta eskumen eremu hauek esleitu zaizkio: teknologia garapena, enpresa berrikuntza eta lehiakortasuna, ekonomiaren sustapena eta enpresen lankidetzeta, industria eta zerbitzu azpiegituren garapena, enpresa ekintzailtza, nazioartekotzea eta kanpo merkataritza, Foru eta Inbertsio Plana, toki finantzaketa, toki erakundeentzako laguntza eta aholkularitza, suteen prebentzio eta itzaltze lanak eta ordenamendu juridikoan adierazten diren gainerakoak. Horiei, foru dekretu honetan, babes zibila gehitu zaie.

Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen Foru Arauko 38., 40., 70. eta 73. artikuluetan eta horiekin zerikusia dutenetan ezarri dira sailei oro har ematen zaizkien ahalmen eta eskuduntzak, eta aipatu alorretan ere marko horren barruan jardungo du administrazioak.

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren ardurapeko eta eskumenpeko eremu materiala zehaztu ondoren, eta horren gainean egin diren txostenak kontuan hartuta, foru dekretu honen bidez sailaren egitura ezarri da, beharrezkoa baita administrazio jarduera eta kudeaketa behar bezala gauzatzeko. Orobat, zerbitzuak eta horiei dagozkien eginkizunak ere zehaztu dira.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Esleitutako jardun arloak

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituenak 2015-2019 agintaldirako, xedatutakoaren arabera, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari esleitu zaizkio Foru Aldundiari dagozkion eginkizun eta lan arlo hauek: teknologia garapena, enpresa berrikuntza eta lehiakortasuna, ekonomiaren sustapena eta enpresen lankidetzeta, industria eta zerbitzu azpiegituren garapena, enpresa ekintzailtza, nazioartekotzea eta kanpo merkataritza, Foru eta Inbertsio Plana, toki finantzaketa, toki erakundeentzako laguntza eta aholkularitza, suteen prebentzio eta itzaltze lanak, babes zibila eta ordenamendu juridikoan adierazten diren gainerakoak.

2. artikulua. Sailaren egitura

Aurreko artikuluan adierazitako jardun arloei dagozkien eginkizunak eta eskumenak betetzeko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailean honako unitate organiko hauek bereiziko dira, erantsitako organigramarekin bat etorritik, eta denak saileko titularrak den foru diputatuaren zuzendaritzapean egongo dira:

Diputatuaren menpean:

Ekonomia Garapenaren Zuzendaritza

Lurralde Orekaren Zuzendaritza

Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzaren menpean:

Ekonomia Garapenaren Zerbitzua

Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren menpean:

Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzua

Toki Administrazioaren Zerbitzua

Zerbitzu horren mendekoa da Laguntza Juridikoaren Atala

Tokiko eta Udalerriaz Gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua

3. artikulua. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari atxikitako entitate, erakunde eta organoak

Hona hemen Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari atxikita dauden erakunde, sozietate eta entitateak, bakoitza Erakundearen Erregistroan daukan identifikazio zenbakiarekin:

a) Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzaren menpean:

ERAKUNDE ZK.	IZENA
87	Araba Garapen Agentzia SA
104	Naturgolf SA
	Fernando Buesa Arena SA

b) Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren menpean:

ERAKUNDE ZK.	IZENA
81	Arabarri
168	Aiarako Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa
177	Arabako Lanak SA
98	Babes Zibileko Batzordea

4. artikulua. Diputatuaren eginkizunak

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 40. artikuluan foru diputatuei esleitzen dizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun arloen esparruan araudiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere, zeinak foru dekretu honen 1. artikuluan zehazten baitira.

Halaber, diputatuari dagokio toki erakundeek beren ondasunak edozein eratan besterentzeko edo kargatzeko baimena ematea edo ukatzea eta, aldeaz aurreko baimena beharrezkoa ez

denean, toki erakundeek edozein eratan beren ondasunak besterentzearen jakitun dagoela adieraztea, bidezkoa baldin bada.

5. artikulua. Zuzendarien eginkizun orokorrak

Zuzendariei dagokie 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 75. artikuluan adierazitako eginkizunak betetzea. Bereziki, honako hauek:

1. Beren gain dauden unitate organiko guztien eta bestelako erakundeen jardunak planifikatu, zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea; eta, horretarako, haien barne funtzionamenduaren araubidea ezartzea.

2. Xedapenen proiektuak egitea eta proposatzea, ezarri den jarduteko politikaren arabera.

3. Saileko foru diputatuari laguntza teknikoa ematea hark eskatzen dizkien gai guztietan.

4. Zuzendaritzaren aurrekontua prestatu, proposatu eta kontrolatzea, bidezko diren aurrekontu aldaketak izapidetzea eta gastu programak ebaluatzea.

5. Zuzendaritzako bulegoen barne araubidearen ardura izatea eta zaintzea; eta haren ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

6. Beren saileko diputatuak eskuordetzaz esleitzen dizkien eginkizunak betetzea.

Arautegi organikoetan eta Foru Aldundiaren erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak

Dekretu honetan arloaren arabera zehazten diren eginkizunetaz gainera, administrazio unitateen buruek eginkizun orokor hauek dituzte:

1. Beren ardurapeko administrazio unitateei dagozkien gaiak zuzentzea eta kudeatzea eta beren eskumeneko arloetan ebazpen proposamenak prestatzea.

2. Haien nagusia den zuzendariari eta, hala badagokio, saileko foru diputatu titularrari laguntza teknikoa ematea, kasuan kasuko unitatearekin loturiko arloetan.

3. Unitatearen urteko aurrekontuaren proposamena eta jardueren memoria prestatzea.

4. Langileez hornitzeari buruzko proposamenak egitea eta beren langileen zuzeneko buruzagitzan aritzea, besteak beste eginkizun hauek dituztela:

– ordutegia betetzen dela kontrolatzea,

– baimenak eta lizentziak kontrolatzea,

– egitekoak eta lanak banatu eta gainbegiratzea, eta haiek betetzearen erantzukizuna izatea.

5. Unitateko bulegoen barne araubideari arreta eskaintzea eta zaintzea, eta haren ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

6. Finkatutako helburuak lortuko direla ziurtatzea.

7. Arautegi organikoetan eta Foru Aldundiaren erabakietan beren gain uzten diren bestelako eginkizunak betetzea.

7. artikulua. Kontratazio mahaia

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailean kontratazio mahai iraunkor bat eratzen da, sail honek bere eskumenen esparruan prozedura irekiaren edo mugatuaren bidez egiten dituen kontratu guztietarako.

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: kontratazioa proposatzen duen zerbitzua bere gain duen zuzendaria, edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaritza: Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buruak jardungo du idazkari lanetan.

Mahaikideak: kontratazioa proposatzen duen zerbitzua ordezkatzeko duten bi funtzionario.

Bi mahaikide, kontratazio organoaren lege aholkularitza eta kontu-hartzailatza beren gain dituzten administrazio unitateek izendatuak.

II. KAPITULUA. EKONOMIA GARAPENAREN ZUZENDARITZAREN EGINKIZUNAK

8. artikulua. Ekonomia Garapenaren Zuzendaritza

Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 75. artikuluan eta horrekin zerikusia duten zuzendariei esleitzen dizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun arloen esparruan araudiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere.

Gainera, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari berariazko eskumen hauek ere badagozkio:

1. Honako hauek bultzatzeko ekintzak eta ekimenak proposatzea eta gainbegiratzea:

- Teknologia garapena eta enpresa berrikuntza Araban
- Lehiakortasunaren garapena
- Ekonomia garapenerako programak eta planak
- Ekintzaileei laguntzea
- Nazioartekotzea
- Finantzaketa eta inbertsio berriak erakartzea
- Industria, teknologia eta zerbitzuetako azpiegiturak garatzea
- Lehiakortasunerako azpiegitura logistikoak garatzea

2. Araban ekonomia eta gizarte aldetik oso sustraiturik dauden erakundeekin lankidetzaren hitzarmenak egin daitezkeen proposatu eta bultzatzea, ekonomia garatzeko programa eta planen ondorioak indartzeko helburuarekin.

3. Gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta informaziorako sarbidea bultzatzea.

4. Bere eskumenerako gaitetako jarraibideak ematea.

9. artikulua. Ekonomia Garapenaren Zerbitzua

Zerbitzu horrek eginkizun hauek izango ditu:

a. Jarduera ekonomikoa sustatzea honako arlo hauetan: industria eta enpresentzako zerbitzuak.

b. Ekonomia sustatzeko, enpresen arteko lankidetzarako eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko programak eta planak prestatu, gauzatu, gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzea, oro har.

c. Ekintzaile berriei laguntzeko programak diseinatu, kudeatu, gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzea, enpresa unitate berriak sustatzeko, eta laguntza tresnak eratzea proiektu berriak gauzatzeko.

d. Nazioartekotzerako eta kanpo merkataritzarako programak eta planak prestatu, gauzatu, gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzea. Nazioarteko sustapen misioetara joatea.

e. Barne eta kanpo sustapenerako berariazko ekintzak diseinatu eta ezartzea, ekoizpen ehuna modernizatzeko eta dibertsifikatzeko, eta enpresa inbertsio berriak erakartzeko.

f. Teknologia garapena eta enpresen berrikuntza sustatzea, honako gai hauekiko jardura planak diseinatuz, gauzatuz eta kontrolatuz: berrikuntza, ikerketa eta teknologia garapena, teknologia transferentzia, informazio teknologia berrien erabilera eta jakintzaren kudeaketa.

g. Arabako enpresen garapena eta lehiakortasuna bultzatzen dituzten industria, teknologia eta zerbitzu azpiegiturak garatzen laguntzea.

h. Lehiakortasunerako azpiegitura logistikoen garapenean laguntzea.

i. Lehendik dauden zein sortu berriak diren enpresetarako finantzaketa tresnen sorrera eta garapena babestea eta antolatzea.

j. Zuzendaritzarentzat ekonomia sustapenaren arloko memoriak eta txostenak egitea; zuzendaritzaren aurrekontuen aurreproiektua prestatzean parte hartzea, eta haren gauzatzea kontrolatu eta izapidetzea; eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin harremanetan izatea.

k. Erakunde publiko nahiz pribatuekiko lankidetzak hitzarmenetako eta laguntza lerroak onartzeko espedienteak proposatzea eta izapidetzea, ekonomia garapenerako ekintzak egiteko.

l. Zuzendaritzari esleitu zaizkion sustapen sozietate publikoetan zuzendaritzak egiten dituen jardunak kudeatzea.

m. Zerbitzuaren jardunerako beharrezkoak diren datu baseak eta informazio iturriak diseinatu, ezarri, kudeatu eta eguneratzea.

n. Zerbitzuko espedienteak kudeatu, kontrolatu eta izapidetzea administrazio, aurrekontu eta kontabilitate esparruei dagokienez eta, oro har, zuzendaritzan egindako jardueren ondoriozko administrazio prozesuetan laguntzea.

o. Agirien sarrera eta irteera erregistroa izapidetzea, aztertuta eta kontrolatuta erantsita dakarten dokumentazioa zerbitzuan edo zuzendaritzan banatzeko; espedienteak artxibatu eta zaintzea; eta zuzendaritzaren xedapen orokorrak aldizkari ofizialetan argitaratzeko izapideak egitea.

p. Okerreko ordainketak itzultzeko prozedurak kudeatzea.

q. Zuzendaritzaren aurrekontuko aldaketak izapidetzea eta horien jarraipena egitea.

r. Zerbitzuak sustatutako kontratazio espedienteak izapidetzea.

s. Gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta informaziorako sarbidea garatzea.

t. Oro har, Araban jardura ekonomikoa bultzatzen, sendotzen eta dibertsifikatzen lagunduko duten jardura guztiak.

III. KAPITULUA. LURRALDE OREKAREN ZUZENDARITZAREN EGINKIZUNAK

10. artikulua. Lurralde Orekaren Zuzendaritza

Lurralde Orekaren Zuzendaritzari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 75. artikuluan eta horrekin bat datozenetan zuzendariei esleitzen dizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun arloen esparruan araudiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere.

Gainera, Lurralde Orekaren Zuzendaritzari berariazko eskumen hauek ere badagozkie:

a. Udal Finantzaketarako Foru Funtza izapidetzea, kudeatzea, idaztea eta haren banaketa proposatzea, kasu bakoitzean ezarritako araudiaren arabera, eta gauza bera egitea kontzejuetarako ekarpenekin edo Arabako toki erakundeek zerga itunduetan dituzten bestelako partaidetzekin, bai eta horiek eta itundu gabeko zergetako udal partaidetzak kudeatzea ere.

b. Toki erakundeei aholkularitza juridikoa eta tekniko-ekonomikoa ematea, baita abokatu laguntza ere.

- c. Lurraldeko toki erakundeei finantza babesia ematea.
- d. Langileak prestatzeko programak sustatzea eta horietan parte hartzea toki erakundeekin.
- e. Administrazio batzarren hauteskunde araubideari buruzko proposamenak aurkeztea eta horren jarraipena egitea.
- f. Gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzako deialdiak eta izendapenak proposatzea, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin eta Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin batera.
- g. Toki erakundeetan teknologia berriak erabil daitezzen sustatzea, eta erakunde horiei laguntza ematea teknologia berriak ezartzeko eta mantentzeko.
- h. Toki erakundeetan larrialdiei eta, batez ere, salbamenduari, suteei aurre hartu eta itzaltzeari eta babes zibilarri lotutako gaien gaineko informazioa ematea eta horiek bultzatu, kudeatu eta planifikatzea.
- i. Lurralde planen eta plan berezien aurreproiektuak egitea.
- j. Lurralde planen eta plan berezien jarraipena eta kontrola.
- k. Aisialdiko tokiko parkeak sortu, zaindu eta mantentzeko sustapena, kontrola eta koordinazioa.
- l. Inbertsio planak.
- m. Obra eta Zerbitzuen Foru Plana.
- n. Gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta informaziorako sarbidea bultzatzea.
- o. Bere eskumeneko gaietako jarraibideak ematea.

11. artikulua. Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzua

1. Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuari honako eginkizun hauek betetzea dagokio:

- a) Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza izapidetzea, kudeatzea, idaztea eta haren banaketa proposatzea, kasu bakoitzean ezarritako araudiaren arabera, eta gauza bera egitea Arabako toki erakundeek zerga itunduetan dituzten bestelako partaidetzekin, bai eta horiek eta itundu gabeko udal partaidetzak kudeatzea ere.
- b) Zerbitzu ezberdinetako espedienteen administrazio, aurrekontu eta kontabilitate kudeaketa, kontrola eta izapidetzea eta, oro har, zuzendaritzan egiten diren jardueren ondoriozko administrazio prozesuetako euskarria ematea.
- c) Agirien sarrera eta irteera erregistroa izapidetzea, aztertuta eta kontrolatuta erantsita dakarten dokumentazioa zerbitzuetan banatzeko; espedienteak artxibatu eta zaintzea, eta sailaren xedapen orokorrak aldizkari ofizialetan argitaratzeko izapideak egitea.
- d) Toki erakundeen ordezkarietako aholkuak ematea, laguntzea eta informazioa ematea zuzendaritzari dagozkion gaietan, laguntzak emateko bideetan, maileguetarako baimenetan eta foru gaietan.
- e) Finantzaketako foru lerroak emateko espedienteak izapidetzea.
- f) Okerreko ordainketak itzultzeko prozedurak kudeatzea.
- g) Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekiko eta gainerako organo ikuskatzaileekiko harremanak koordinatzea.
- h) Zuzendaritzako zerbitzuen urteko aurrekontuak prestatzeko lanak koordinatzea, eta aurrekontu horien urteko betearazpena izapidetu eta kontrolatzea.
- i) Zuzendaritzaren aurrekontuko aldaketak izapidetzea eta horien jarraipena egitea.
- j) Zuzendaritzaren informatika programak sortzen eta mantentzen laguntzea.

k) Zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta horiei, aldizka, informazioa ematea kontabilitate, ekonomia eta aurrekontu gaiez, espedienteen izapidetzeaz eta haietan eragina duten araudi berriez.

l) Sailari atxikita dauden eta zuzendaritzarekin harremana duten sozietateen ekonomia eta kontabilitate egoera aztertzea.

m) Sailak sustatutako kontratazio espedienteak izapidetzea.

n) Laguntza ematea toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barruko obren kontratazio espedienteak izapidetzeko, bai eta sailak sustatutako bestelako lankidetzak tresnetan ere.

o) Errekurtsoak izapidetzea.

p) Gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta informaziorako sarbidea garatzea.

q) Loturik dauden gaietan zuzendaritzako gainerako zerbitzuekin lankidetzan aritzea, bere eskumen eremuaren barruan.

12. artikulua. Toki Administrazioaren Zerbitzua

1. Hona hemen Toki Administrazioaren Zerbitzuaren eginkizunak:

a) Arabako toki erakundeetan larrialdiei eta, batez ere, salbamenduari eta suteak itzaltzeari lotutako gaien gaineko informazioa ematea eta horiek bultzatu eta kudeatzea.

b) Laguntza ematea lurralde planak eta plan bereziak egitean eta horien jarraipena egitea.

c) Toki erakundeetan teknologia berriak erabil daitezela sustatzea, eta erakunde horiei laguntza ematea teknologia berriak ezartzeko eta mantentzeko.

d) Toki erakundeei ekonomia arloko aholkularitza eta finantza babesak emateari loturiko gaiak planifikatzea eta kontrolatzea.

e) Toki erakundeen finantza babesari loturiko araudi proposamenak egitea.

f) Aisialdiko tokiko parkeak sortu, zaindu eta mantentzeko sustapena, kontrola eta koordinazioa.

g) Kontzejuen aseguruarekin zerikusia duten espedienteen gaineko informazioa, izapidetzea eta horien kontrola egitea.

h) Aldundiaren ekintzak beste organo eta erakunde batzuen ekintzekin koordinatzea, babes zibilaren arloan.

i) Lurralde planen eta plan berezien aurreproiektuak egitea.

j) Bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten foru planen jarraipena eta kontrola, eta plan horien aldaketak proposatzea.

k) Baliabide mugigarrien katalogoak egiteko lana zuzentzea.

l) Aurre hartzeari buruzko azterlanak egitea eta neurriak proposatzea.

m) Prestakuntza eta informazio ekintzak sustatzea bere eskumeneko arloetan.

n) Aurre hartzeko jardueretan teknikak, giza baliabideak eta baliabide materialak normalizatzea proposatzea.

o) Beste administrazio batzuekin egindako lankidetzak hitzarmenen jarraipena eta kontrola.

p) Inbertsioak egiteko proposamenak prebentzio eta su itzaltze eta salbamendu unitateetarako.

q) Prebentzio, su itzaltze eta salbamendurako Arabako Foru Aldundiak finantzatzeko baliabideak kontrolatzea.

r) Aisialdiko tokiko parkeen sarea kontrolatzea.

s) Toki erakundeen finantza babesari loturiko egitekoak gauzatzea; eta, zehazki, toki erakundeen aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasagarritasuna ebaluatzea, ekonomia planak kontrolatzea eta kostuak kontrolatzea.

t) Kontabilitate eta aurrekontu arloko araudiari buruzko proposamenak egitea, bai eta finantza eragiketei buruzkoak ere, eta hori guztia toki erakundeei lotuta.

u) Tokiko zerga ordenantzak izapidetzeko laguntza ekonomikoa ematea.

v) Toki erakundeen aurrekontuak prestatzeko laguntza tekniko-ekonomikoa ematea, bai eta likidazioak, aurrekontuen aldaketak eta kontu orokorrak egiteko laguntza ere. Gero, horiek guztiak onartu eta kontrolatzea.

w) Laguntza tekniko-ekonomikoa ematea Arabako kontzejuen kontuak prestatzeko; eta gero, horiek onartu eta kontrolatzea.

x) Toki erakundeek baimena eskatzeko aurkezten dituzten eskabideen espedienteen gaineko txostenak egitea, zorpetze eragiketarako egiteko. Arabako toki erakundeen inbertsioak, obrak eta zerbitzuak finantzatzeko foru lerroaren azterketa eta ekonomia eta finantza azterlana.

y) Toki ogasunen egoerari buruzko azterlanak egitea.

z) Administrazio prozedurak eta tokiko kudeaketa ekonomikoaren prozedurak arrazionalizatzeko aholkuak ematea eta, horretarako, aurrekontuen ereduak, kredituak aldatzeko espedienteak, likidazioak eta toki erakundeen kontuak eratzea.

aa) Loturik dauden gaietan zuzendaritzako gainerako zerbitzuekin lankidetzan aritzea, bere eskumen eremuaren barruan.

2. Toki Administrazioaren Zerbitzuaren mende dago Laguntza Juridikoaren Atala. Hona hemen Laguntza Juridikoaren Atalaren eginkizunak:

a) Laguntza juridikoa ematea saileko zerbitzuei eta zuzendaritzeari.

b) Toki erakundeei aholkularitza juridikoa eta epaiketetan abokatu laguntza ematea, bere eskumenerako gaietan.

c) Toki kontratazioen gaineko txostenak egitea eta baldintzen agiriak eta obra, zerbitzu eta horniduren kontratuak idaztea.

d) Toki ondasunen besterentzeari buruzko txostenak egitea eta horiei lotutako espedienteak kontrolatu eta gainbegiratzea.

e) Toki ondasunen inbentarioak jasotzea.

f) Gaikuntza nazionala duten funtzionarioen deialdia eta izendapena izapidetzea, IVAPekin elkarlanean.

g) Toki erakundeei aholkuak ematea partzuergoei eta elkartzeko beste bide batzuei buruz.

h) Partzuergoei eta beste ondasun erkidego batzuei laguntza juridikoa ematea.

i) Kontzejuetako biztanle erroldak egiteko aholkuak ematea.

j) Administrazio batzarren hauteskunde araubideari buruzko arau proposamenak egitea eta gero administrazio aldetik horien jarraipena egitea.

k) Lurralde mugak aldatzeari, toki erakundeen izenari eta horien ikur bereizleak hartu edo aldatzeari buruzko espedienteen txostenak egitea, kontrolatzea eta gainbegiratzea.

l) Zerbitzu ermandadeen gaineko ebazpen proposamenak izapidetzea, prestatzea eta horien gaineko txostena egitea.

m) Kuadrillen gaineko txostenak ematea eta, oro har, horien espedienteak izapidetzea.

n) Toki erakundeen foru erregistroa sortu, zaindu, mantendu eta eguneratzea.

o) Zuzendaritzaren berezko gaietan zehapen prozeduretan laguntza ematea, bideratzea eta izapidetzea.

p) Tokiko zerga ordenantzak izapidetzeko eta kontrolatzeko laguntza juridikoa ematea.

13. artikulua. Tokiko eta Udalerriaz Gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua

Tokiko eta Udalerriaz Gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuari honako eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Zerbitzuari agintzen zaizkion jardueren programak egin, onartu eta betearazteko aurreikusten diren planifikaziorako azterlanak egitea eta, bereziki, Obra eta Zerbitzuen Foru Planari dagozkionak, auzo harremanak sustatzeko ekimenak (Auzolan) egitea, obra txikiak gauzatzea, eta toki erakundeen inbertsioetarako beste plan batzuk egitea.

b) Zerbitzuari agintzen zaizkion jardueren eremuetan sartzen diren laguntza programak arautzen dituzten foru arauen aurreproiektuak lantzea.

c) Laguntza programak arautzeko xedapen multzo osagarria egitea: laguntza programak kudeatzeko eta ebatzeko oinarri arautzaileak, dirulaguntzak edo bestelako laguntzak benetan jasotzeko baldintzak eta betekizunak finkatzeko xedapenak.

d) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren, eta bere eskumeneko azpiegiturak edo obrak egite aldera toki erakundeak diruz laguntzeko xedea duten plan edo programen betearazpena izapidetu, proposatu, kudeatu eta kontrolatzea.

e) Obra eta zerbitzuen gaineko txostenak, azterlanak eta dokumentazio teknikoa idaztea; halaber, tokiko obren jarraipena egingo du, beharrezkoa denean horretarako beste sail batzuen laguntza teknikoa eskatuz edo kanpoan kontratatuz.

f) Toki erakundeak garatzeko beharrezkoak diren jardunen gaineko azterlanak egitea, jardun horiek gauza daitezzen proposatzea, sustatzea eta horien berri ematea.

g) Toki erakundeekin elkarlanean aritzea ahalbidetuko duten jarduera programak ezartzeko toki, udalerrri eta eskualde mailan beharrezkoa den informazioa eskuratzeko jardunak mantentzea, egitea eta kudeatzea.

h) Erakunde, herri administrazio, pertsona juridiko edo fisikoekin lankidetzak hitzarmenak eta bestelako kontratu figurak egin, antolatu eta kudeatzea, zerbitzuari agindutako eskumetatik sortutako jardueretan garapena eta lankidetzak izateko (kudeatzeko ardurak, lankidetzak hitzarmenak...).

i) Aholkularitza ematea toki erakundeei zenbait arlotan: hainbat herrigunetan adierazitako beharrezkoak, horiek definitzea eta laguntza programen deialdietan beharrezkoak diren eskaerak egitera bideratuta; jarduerak eta inbertsioak planifikatzea; eta, oro har, zerbitzuari dagozkion eskumenei zuzenean eragiten dieten alderdi guztiez.

j) Zerbitzuak kudeatzen dituen laguntza programen kargura toki erakundeei diruz lagundutako edo lagundu beharrezko jarduerekin lotuta egin behar dituzten inbertsioen ekonomia eta finantza bideragarritasuna planifikatzea, analisisa egitea, aztertzea eta horri buruzko informazioa ematea.

k) Toki erakundeetan zerbitzuen egoerari eta beharrezko buruzko azterlanak egitea.

l) Toki erakundeen ekipamenduen eta zerbitzuen gaineko diagnostikoa lantzea.

m) Zerbitzuari esleitutako ekonomia eta finantza tresnak (kreditu lerroak, zerbitzuen kudeaketa planak, inbertsioko finantza azterlanak...) kudeatzea, toki erakundeekin lankidetzan aritzeko, baita baimen/ukoen antolaketa, informazioa eta proposamenak egitea ere.

n) Norgehiagoka erregimenaren bidez dirulaguntzak emateko prozeduren organo izapidegile lanak egitea.

o) Zerbitzuari dagozkion lankidetzak programa edo partidetako laguntzak egituratu, planifikatu, definitu, arauak egin eta jarraipena egitea, itun politikoen edo aurrekontu itunen emaitza

badira, kontrolatuta jardueren gauzatzea eta behar bezala finantzatu direla (izaera nominatiboko aurrekontu partidak, inbertsioko programa bereziak edo apartekoak, finantzaketa sistema edo formula osagarriak ezartzea...).

p) Zerbitzuaren eskumenpeko gaiak direla eta saileko edo Arabako Foru Aldundiko arduradunei legegileak egiten dizkien askotariko eskaerei erantzuteko eman beharreko informazioa egitea, nagusi hierarkikoek aginduta.

q) Arabako herriguneeen azpiegitura eta ekipamenduen inbentarioa egin, gaurkotu, mantentze lanak egin, sustatu eta kudeatzea, erreferentzia tresna izan dadin zerbitzuak bere gain kudeatzeko dituen laguntza programak behar bezala ezartzeko. Aldundiaren GISeko geruza instrumentalak sortzea eta mantentzea, sailaren eskumeneko gaietan.

r) Laguntza ematea toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barruko obrak gauzatzeko, bai eta sailak sustatutako bestelako lankidetzatza tresnetarako ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.

a) Kanpoan, gaixorik, aldi baterako ezinduta edo abstenituta edo errefusatuta dauden zuzendariak ordeztzeko araubidea Diputatuen Kontseiluaren irailaren 22ko 54/2015 Foru Dekretuak, foru aldundi honetako sailtako zuzendariak ordezkatzeko araubidea onartzen duenak, ezarritakoa izango da.

b) Administrazio unitateen arduradunak aldi baterako ez badaude edo egon ezin badute, uztailearen 31ko 82/1997 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, buru duten zuzendaritzako arduradunak erabakitzen duen hark beteko ditu haien eginkizunak. Berariaz zehaztu ezean, eginkizun horiek unitatean administrazio kategoriarik altuena daukan langileak beteko ditu eta langile bat baino gehiago izanez gero, antzintasunik handiena duenak.

Salbuetsita geratuko dira araudi propioa duten kasuak.

Bigarrena.

Uztailearen 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 18.3. artikuluan ezarritakoa betetzeko, xedapen honetan ezartzen den egitura organikoak lanpostuen zerrendan eragiten dituen aldaketak funtzio publikoaren alorrean eskuduna den erakundeak jasoko ditu, lanpostuen zerrenden unean uneko egoerari buruz aldizka eguneratutako informazioa daukan agiri batean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko dira Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 8ko 62/2012 Foru Dekretua eta Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 11ko 13/2014 Foru Dekretua, bai eta hemen ezarritakoaren aurka egiten duten gainerako xedapenak ere.

AZKEN XEDAPENA

Diputatuen Kontseiluak onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean foru dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SÁENZ

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILAREN ORGANIGRAMA
ORGANIGRAMA DEL DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

